

Marmari

16. zenbakia / 2008ko urtarrila

Leizako
aldizkaria

-Bai Euskarari






-Aniztasun
biologikoaren
gainbehera

-Gaixotasunak
eta fobiak....



Kultur taldea
urte berriarekin
berritu egin da

zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena.

4-7. or. Bai Euskarari.

8-10. or. Sexualitateari buruz zenbait kontu.

11. or. Dinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aurkezpena.

12-17. or. Aniztasun biologikoaren gainbehera.

28-20. or. Euskararen garapen teknologikoa.

21-23. or. Gaixotasunak eta fobiak.

24. or. Euskarazko produktuen katalogoa.

25-26. or. Denbora pasak.

27. or. Errezetak eta Eroskopa.

28. or. Izen-abizenak.

• Argitaratzailea: MARMARI

• Diseinua: Allende Arnaiz

• Maketazioa: Igor Astigarraga

• Argazkiak: Euskara Zerbitzua, Kultur Taldea eta ELHUYAR

16 garren aidanez

Jadanik 2008. urtean satu gara, eta urte berriarekin batera hementxe dugu Marmariren 16. edizioa. Aurreko aleetan bezala, Marmariren muin nagusia euskara eta euskararen inguruko gaiek osatzen dute.

Bai euskarari egitasmoa aurte ere aurrera doa, eta jarraipenerako hainbat jarduera antolatu ditugu. Ikasturte honetako jarduera berrien artean nabarmentzena tabernetan euskara erabiltzeko egin den kanpaina izan da, esukaraz eskatzen zuten berezoak sarituz. Urte zahar egunean euskaraz eskatzen zuenari kakahueteak eta patatak eman diete. Eskertzekoa da tabernariak kanpaina horretan parte haru izana. Ziurtagiria duten bi eragileei elkarrizketa motz bat egin diegu haien egoera ezagutzeko.

Bestalde, oraingo alean Leitzako Amazabal institutuko ikasleek ere parte hartu dute. Ikasleen ekarpenak oso intersegarriak dira, eta bihotz bihotzez eskertzen diegu haien parte hartzea. Institutuko ikasleek, besteak beste, sexu harremanei buruzko artikulua praktikoa eta benetan interesgarria idatzi dute.

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuak egiten duen lana eta ematen duen zerbitzuari buruzko informazioa aurkituko duzu Marmarin.

Azkenik, Leitzako kultur taldeak egindako oharra eta agurra doakizue:

Lehenik eta behin, gure agurra leitzar guziri, herriko kultur taldean lanean aritutako guziri esker ona adierazi nahi diegu. Orain ere hementxe gabil-

tze, Taldea kide berri eta zaharrekin lanerako prest, gure atakabeltzeko gelatxoan; Leitzen urtean zehar kultur egitarau eder eta bizi bat aurrera ateratzekotan.

Hala eta guztiz ere, dei bat egin nahi genizueke gaztenei parte hartzeko, denen artean osagarriagoa izatearren. Datozen hilabeteetako gauza polit eta erakargarriak antolatu nahian gabiltze, herritarren gustuak izanen direlakoan zuen parte hartzea aurretik eskertuz.

Urte berri on bat opa dizuegu leitzar guztioi.

Leitzeko kultur taldea

Marmarin parte hartzera animatzen zaituztegu. Ongi hasi urtea.

Bai Euskarari Leitzaldean

Ekimenaren abiatzea eta faseak



Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen.

Bi fase nagusi izan zituen ekimenak: lehendabiziko fasean, herritarren eta eragileen artean Bai Euskarari Akordioaren berri eman zen, eta ekimenaren inguruko giroa sortzen ahalegindu ziren.

Bigarren fasean, Kontseiluaren izenean lanean aritu ziren teknika-

riek (bat Leitza-Areson eta bestea Goizueta-Aranon), eragileak bisitatu zituzten, eta konpromisoak hartzeko eta ziurtagiria eskuratzeko proposamena egin zieten. Eskualdean eragile ugari dagoenez, nolabaiteko hautaketa bat egin zen, eta horiengana jo zen. Prozesuan parte hartzeko gonbita, nolahi ere, lau herriotako eragile guztiei egin zitzaion. 150 gizarte eragilerengan jo zen. 2 hilabetez.

Bi fase horien bukaeran, azkenik, ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egin zen, 2004ko uztailaren hasieran. Esan bezala, 78 eragilek lortu zuten ziurtagiria; beraz, 78 eragile horiek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartu zituzten.

2006ko azaroan Kontseiluak, UEMak eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitzan euskararen alde lankidetzan aritzeko asmoa azaldu zuten. Aipatutako hiru erakundeek Bai Euskarari Ziurtagiria elkarrekin sustatzeko konpromisoa hartu dute eta lankidetzaren honen aurkezpena egin zuten. "Guztiok elkarrekin abiatu dugun elkarlana oso interesgarria da, lehendik egiten ari zen lana osatzera baitator", adierazi zuen Kontseiluko ordezkariak. Ondotik Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko udalek beste urrats bat eman zuten euskararen aldeko prozesuan. Hilabete horretan bertan Kontseiluak, UEMak eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitzan Bai Euskarari Ziurtagiria elkarlanean sustatzeko hitzarmena sinatu ostean, Kontseiluak eta Mankomunitateko udalek ere izenpetu zuten.

Lau urte hauetan Euskararekiko konpromisoa eta lana mantendu egin da. **Ziurtagiriaren Elkarte** sortu berriak Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu dizkie euskararen normalizaziorako neurriak garatzen ari diren Leitzaldeko entitateei. Izan ere, aurreko astean Donostiako Kursaal aretoan ospatutako ekitaldi nagusian

Kontseiluak, proiektuaren kudeaketaren lekukoa pasatu dio Ziurtagiriaren Elkarte berriari. Hemendik aurrera, Ziurtagiriaren Elkartearen esku egongo da Bai Euskarari Ziurtagiriaren kudeaketa.

Leitzan Bai Euskarari Akordioa abiatu zenetik laugarren ekitaldia izan dugu aurten. Ekitaldi horrek urte bateko lanen emaitza islatu nahi du. Ziurtagiria jaso duten 51 saltoki, enpresa eta bestelako entitate Leitza eta Aresokoak izan dira; gainontzeko 19ak, Goizueta eta Aranokoak. Ekainaren 22an ospatu zen ekitaldia.

Poztekoa da, hiru urteren ondoren Bai Euskarari Ziurtagiri kopuruak egonkortasun bat lortzeaz gain, Leitzaldeko eragileak lan ildo bati eutsi eta beren elkarte, komertzio eta enpresetan Euskara normaltasunez erabiltzeko bide berriak irekitzen ari direla.

Leitzaldeko errealitate linguistiko eta kulturala urte askotan zehar erakunde, eragile eta herritarrek egindako lanaren ondorioa da. Denbora luzean zehar egindako lanari jarraiki, Bai Euskarari Ziurtagiriak, jorrotutako bideak zein diren identifikatu eta hortik aurrera joateko proposamenak eskeintzen ditu.

Honela elkarte, komertzio eta enpresa bakoitzak bere funtzionamendu eta baldintzen arabera urtetik urtera euskararen erabilera normalizatzeko helburuak erabakitzen ditu.

Azpimarragarria da norberak irekitako bideak gainerakoentzat ere erabilgarri izaten direla eta aurten lan politak eta interesgarriak ikusteko aukera izan dugu: Idatziz eta ahozko komunikazioan euskaraz aritzen diren elkarteak, lanean euskara oinarri bezela hartuz bezeroen arabera publizitatea ere euskaraz edo elebitan egiten duten enpresak, konpromisoa bera ikastetxean parte hartzen duten eragile guztiengana komunikatu eta ailegatu arazteko ekitaldi eta





bai

www.baieuskarari.org

2005

BIDEAN

Aditek S.L.
Soruza Poligonoa z/g • 943147745

Katxo Grou
Gurutze Kalea 7 • 665720633

MGS-Nahier Aseguruenak
San Juan kalea, 10 • 943897101

Talleres Literales S.L.
Industrialde 1 • 943885990

Ugarte Bardiñandia
Portale 13 • 943147154

Elortza Mertzoria
Portale 7 • 943147139

Estanhoa
Portale 4 • 943147110

Jone Estetika
San Juan 12 Bidea • 943147522

Kaitze Taberna
Pom Plaza 4 • 943147095

La Huerta del Pais
Portale 4 • 943148208

Mianxa
San Juan Bidea 1 • 943147015

Mireia Gozategia
Erdi Kale 3,2

Mollegi Taberna
Erdi Kale 8 • 943147139

Omenak Altzariak
Gurutze 3 • 943147081

Potsolo Liburu Denda
Gurutze Kalea 6 • 943147133

Romana Oñandegia
Gurutze Kalea 12 • 943147155

San Juan Bidea 5 • 943147019

Txoko Taberna
Erdi Kale 5 • 943147195

Santarrain Basari Eskola
Lili osoa z/g • 943148115

Uztapide Taberna
Erdi Kale 5 • 943147322

Kiral Bazkuna
Uztapide Plaza z/g • 943147943

Koro Ite Apaindegia
Gurutze Kalea 7 • 943148322

Lapene Harategia
Zearraze Dax Erparantz 9
943147848

Uztadun Harategia
Erdi Kalea 5 • 943147023

ZERBITZUA EUSKARAZ

Bakara Itxulpen eta Argintzen Zerbitzuak
San Isidro 23 - Arroaba • 943148437

Egoinazki Kirolak
Gurutze 1 • 943147837

Ezizurre Oñandegia
Kale Okerra 7 • 943148417

ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

Fiti Taberna
Erdi Kale 7 • 943148464

Herrri Ikastetxea
San Juan Auzoa z/g • 943147977

kontuan hartu euskararekin konprometitzen dena.

kontuan hartu euskararekin konprometitzen dena.

lanak, administrazioari zerbitzuak eta komunikazioak gutxienez euskaraz izateko egindako eskariak...

Zorionak beraz orain arte egindako guztiagatik, zuetako bakoitza sortzen ari zareten posibilitateengatik eta euskararen inguruan elkarlanerako irikitzen ari zareten bideengatik.

Era berean, gogorazi nahi dizuegu eskualdeko herri guztietan Kontseilua garatzen ari den Bai Euskarari Akordioaren bidez, **Bai Euskarari Ziuertagiria** eskuratzeko aukera duzuela.

- Bai Euskarari Ziuertagiriaren bidez, enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek euskararekin konpromisoa adierazten diote gizarte osoari.
- Ziuertagiriak laguntza eskaintzen du, entitatearen hizkuntza egoera aztertu eta bakoitzaren arabera neurri zuzentzaileak proposatzeko
- Bai Euskarari Ziuertagiria duten entitateak euskararen normalizazioaren aldeko neurriak garatzen ari direla kreditatzen du Ziuertagiriaren Elkarteak. Honela, Ziuertagiria eskuratu duten entitateei euskararen normalizazioan egindako ekarpena aitortuz.
- Bai Euskarari Ziuertagiriak hiru maila ditu: *Euskararen Bidean / Guk Zerbitzua Euskaraz / Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz*

Informazio gehiago jasotzeko edo ziuertagiria eskuratzeko interesa baduzue, jo UEMARA edo Leitzaldeko euskara zerbitzura: e-posta: leitzaldea@euskalnet.net telefonoa 948 510 814.

eskutik euskara



ANIMATU LAGUN BAT EUSKARA IKASTERA!

Kad nahi duen lagun edo sarritan datuak eskaintzen eman



KONTSEILUA

Datuak

Ikasi nahi duen lagun edo sarritan datuak zeure eskutik eman. Datuak eman aurretik eskaeratu baimena

Izena: _____

Abizenak: _____

Telefonoa: _____

E-mail: _____

Elkarrizketak

Kapritxo arropa denda

Juana Goikoetxea Zabaleta

Zerk bultzatu zaitu Ziurtagiria hartzera?

Euskararekiko konpromisoa adieraztea, agertaraztea...

Zertan hobetu duzue Ziurtagiriarekin?

Fakturak eta ordainagiriak orain euskaraz egiten ditu.

Etorkizunerako zein erronka aurreikusten duzue, zein konpromiso?

Arroparen tiketak euskaraz jartzea bi aldeetatik.

Zu euskararekin konprometitu zara, nabaritu al duzu jendea zurekin konprometitu dela?

Jendeak aintzat hartzen du euskaraz funtzionatzea.



Aurrera elkartea Aitziber Sagastizabal

Zerk bultzatu zaitu Ziurtagiria hartzera?

Elkartearen ildoak euskaraz bizitzea eta euskara sustatzea da eta izan da.

Zertan hobetu duzue Ziurtagiriarekin?

Azken urteootan euskaraz egin da, ziurtagiriarekin konpromisoak gertuago daude. Orain idatziz jasota daude konpromisoak, ziurtatuago.

Etorkizunerako zein erronka aurreikusten duzue, zein konpromiso?

Nafar Gobernuari bidali beharreko agiri ofizial eta idatziak euskaraz soilik bidaltzea atzerepenengatik kezkatu behar izan gabe. Nafar Gobernuak elkarteari bidaltzen dizkion agiriak euskaraz ere izatea eskatzea.



Sexualitateari buruz zenbait kontu

ANTISORGAILUAK

Gazteen artean sexualitatea da duda gehien sortzen dituen gaia. Askotan sexu harremanak izateko gai ikusten dugu gure burua, baina arazoak sortzen direnean ez dakigu nora jo, gurasoei esateak lotsa ematen digu eta lagunek ere ez dakite gu baino askoz gehiago. Hau dena ekiditeko antisorgailuak erabili eta lasaiago bizi: preserbatiboek haurdunaldiez eta sexu bidez transmititzen diren gaixotasunez babestuko gaituzte eta. Horregatik, zenbait aholku eman aurretik esan, beti daudela informazio ezagatik lagunen artean zabaldutako metodo faltsu batzuk asko nahasten gaituztenak, adibidez: sexu harremanean ondorengo bagina garbiketarak, sexujotze etena (marcha atr-s), Baina hauekin haurdun gelditzeko arriskua handia da, baita gaixotasunak harrapatzekoa ere.

Ondoren, segurantzaz gutxiko metodoak datoz. Hauek praktikatzeko gure gorputza oso ondo ezagutu behar dugu (gaur egungo gizartean ia ezinezkoa), gorputzeko atalak kontrolatuz egun emankorrek kontrolpean izatean datza, adibidez: hilerokoa kontrolatuz, tenperatura kontrolatuz.... Baina faktore hauek edozein gauzgatik alda daitezke, beraz, ez dira batere fidagarriak eta



gainera sexu bidezko gaixotasunetaz kutsatzeko arriskua ere badago.

Azkenik, segurantz handiko metodoak datoz. Hemen diafragma, DIU, pilula, esterilizazioa, tronpen lotura e.a. daude. Hala ere, ezin dugu ahaztu denetan antisorgailu seguro, eraginkor eta eskuragarriena: kondoa. Ez inoiz ahaztu eta sartu buruan: ongi erabiliz gero, kondoa dugula haurdunaldietaz eta sexu bidez kutsatzen diren gaixotasun guztietaz babesten gaituen antisorgailu bakarra. Oso gutxitan huts egiten du, hausten deneansoilik eta esan beharra dago, kondoi femeninoa eta kondoi maskulinoa ezin direla batera erabili.

Emandako aholku guztiez gain, gau ero baten ondoren antisorgailurik erabili ez baduzu hurrengo eguneko pilula hartu behar duzu. Hau emergentziatzko medikamentu bat da eta haurdun gelditzea babesten du Medikuaren errezeptarekin har daiteke soilik eta muturreko kasuetan hartu behar da, jarraian hartzeak osasuna arriskuan jartzen baitu (menstruazio ziklo berean behin bakarrik har daiteke). Harremana izan eta 24-72 ordu bitartean hartu behar da. Hurrengo eguneko pilulak ez du sexu bidezko gaixotasunetatik babesten.

Euskal Herriko hainbat lekutan existitzen diren emakumeentzako zentroetan edota honen inguruan lan egiten duten elkarten bitartez lor dezakegu honi buruzko informazioa. Bertan mediku eta ginekologo ezberdinen aholkuak entzun ditzakegu.

AFRODISIAKOAK

Gaur egun gutxi eza-gutu eta erabiltzen dituzte afrodisiakoak. Ostra afrodisiako dela esaten da zinkarengatik, zinka ez edukitzeak sexu-arazoak ekartzen dituelako. Sexologoen



ustez, hauek dira afrodisiako onenak: bizimodu osasuntsua, ongi eta zuzen jatea, atsedena hartzea eta oreka ez galitzea. Hormonen orekari eusteko osasun ona izan behar da, beraz ez dira substantzia kaltegarriak hartu behar. Afrodisiako kaltegarriak hil egin dezakete, arriskutsuenak: absenta, datura, estriknina, fugua, methaqualonea eta opioa. Adibidez: Japonian 300 lagun hiltzen dira fugua hartzeagatik, fugua arram baten koskabiloetako isurkia da eta sexu bizkarri handikoa da. Ona hemen afrodisiako ezagun batzuk: txokolata, kafea, ardoa, jengibre, isaskiak, trufa, banilla eta lurrin exotikoak.

Bitxikeriak

- Gizonezkoetan hilkortasuna %50 jeitsi daiteke bizitza sexual aktiboa badu.
- Sexuari buruzko gidaliburu zaharrenak Txinan idatzi ziren orain dela 500urte inguru.
- Hiru emakumek esan dute sexu harremanak izan dituztela beste planeta batzuetako izakiekin.
- Nondik dator follatu aditza? Latineko follicare hitzetik dator, baita ere follis-etik dator, hasieran follatuk jolastea esan nahi zuen eta gero sexualitatearekin hartu zuen lotura.

HOMOSEXUALITATEA ATZO ETA GAUR

Dirudien bezain onartua al dago homosexualitatea gazte jendearen artean?

Homosexualitateaz hitz egiterakoan, badirudi arazorik ez dagoela eta

gehiengoak onartzen duela, baina jakin badakigu oraindik ere bikote homosexual baten aurrean gure jarrera bestelakoa dela. Guzti honetaz



informazioa biltzen duen artikulua interesgarri bat aurkitu dugu gaztesarea.com-en.

Artikuluak dio, historian zehar, egoera legala aldatu den arren, jendearen jarrera oraindik ez dela guztiz aldatu. Frankismo garaian sexu bereko pertsonen arteko harreman afektiboak adieraztea legez kanpokoak zenez, ghettoak sortu ziren; izan ere, homosexualak beraien sexualitatea toki pribatuetan adierazteko beharra sentitu baitzuten. Lehen esan bezala, legea aldatu egin da, baina ghettoak oraindik bizirik dira. Garbi dago, hauen bidez, lehen legearengandik ezkututzen ziren bezala, gaur egun gizartetik ezkututzen direla.

Homosexualek ligatzen ote dute?

Aipatzekoa da, baita ere, Euskal Herriko jai giroak ez duela egoera aldatzen laguntzen; izan ere, giroa oso heterosexuala da, oso kasu gutxitan ikusten baititugu sexu bereko bi pertsona ligatzen. Hori dela eta, inkontzienteki, guztiak heterosexualak direneko ustea zabal-

tzen da gure artean, eta ezinezkoa dirudi sexu bereko bi pertsonak ligatzea

Hausnarketa hau egin ondoren konaturatzen gara frankismo garaian sortu ziren ghetto horiek gaur egun badutela beren zentzua, eta beharbada txip aldaketa bat egitea komeniko litzaigukeela guztioi bakoitzak bere sexualitateaz askatasunez gozatzea etengabeko borroka izan ez dadin.

Familia giroan nola onartzen da? Familian, gurasoen kasuan batez ere, oso garrantzitsua da homosexualitatea buruko nahaste bat ez dela jakitea, pertsona batek ezin baitu aukeratu homosexuala edo heterosexuala izatea.

Nerabeek askotan beraien burua baztertzen dute, eta ondorioz asko depresioan sartzen dira. Horrelako kasuetan beharrezkoa da gurasoak adi egotea; izan ere, azken azterketek agerian utzi dutenez, bere buruaz beste egin duten pertsona kopurua altua da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da gurasoak seme-alabei hori gaingiditzeko laguntza ematea.

MITO SEXUALAK

1.-Alkohola estimulantea?

Askotan entzun izan dugu alkoholak jendearekin tratatzen eta "lotsa galitzen" laguntzen duela, baina egia al da hori? Hau egia da bai, baina kantitate txikitik edaten bada. Kantitate jakin batetik pasatzen bagara, sexu harremanak oztopatu egiten dira eta erektzio on bat izatea eragozten du.

2.-Zakilaren neurria garrantzitsua al da?

Gizonezkoen zakila normal dagoenean 5-10 zentimetro bitarte neur ditzake, 2,5 zentimetroko diametroarekin. Zakila tente dagoenean, berriz, 13-16 zentimetro neur ditzake, 4 zentimetroko diametroarekin. Hau jakinda garrantzitsua al da zuretzat zakilaren neurria?



3.- Kirola egiteko ahalmena baxuagoa al da eiakulazio baten ondoren?

Gizon bat ez da ahul gelditzen eiakulazio normal bat izanda, entrenatzailerak askok esan ohi duten bezala. Hau kirolariak beldurtu daitezkeen esaten dute eta ohera azkar joan daitezkeen, inolako harremanik izan gabe.

4.- Harreman Sexualik ez izan haurdun gaudenean.

Asko idatzi izan da emakumeek egin ditzaketen gauzetaz haurdun daudenean, adibidez, bidaiatu, kirola egin, koitua praktikatu eta gidatu. Emakumeak, nahiz eta haurdun egon, osasuntsu badaude ez dute inolako problemarik lehen aipatu ditudan ekintzak egiteko. Hori bai, azken bi hilabetetan ez da gomendatzen bidaiatzea eta koitua praktikatzea, jada oso zaila izango baita emakumearen sabelaren neurriagatik. Hala ere, bikoteak elkarri musuak emanez eta laztanak eginez goza dezakete.

5.- Nola geratu daiteke haurdun eta nola ez.

Agian entzun izan duzue emakume bat haurdun gelditu litekeela sexu orala praktikatu, batez ere semena iren-

tsiz gero. Hau dena gezurra da. Sexu orala norberarentzat gustukoa izan daiteke edo ez, baina argi dago horren ondorioz ez garela haurdun gelditzen, uteroa eta estomagoa ez baitaude elkar loturik. Hala ere, sexu orala izan daiteke sexu bidezko gaitzen transmisioaren bideetako bat.

6.- Haurdun ez gelditzeko "modu magikoak".

Askotan entzun izan ditugu haurdun ez gelditzeko hainbat modu, zein baino zein astakeria handiagoa.

- Ezin zara haurdun gelditu lehendabiziko aldiz egiten duzunean.
- Ezin zara haurdun gelditu harremanak igerilekuan gertatzen badira.
- Ezin zara haurdun gelditu harremanak izan ondoren genitalak garbitzen badituzu.
- Ezin zara haurdun gelditu harremanak zutik izaten badituzu.

Goian azaldu ditudan modu edo truku guztiak gezurrak dira. Genitalak garbitzeak ez du eragozten haurdun gelditzea, jada semena bajinatik sartu eta espermatozoideak bertan geratu baitira. Laburbilduz, koitodun harreman sexualak izan badituzu eta eiakulazioa gertatu bada haurdun geratzeko arriskua dago.

7.- Minik ematen al du lehenengo aldiak?

Lehenengo harreman sexualetako mina, normalean, beldurretik datorkie emakumeei. Koitua praktikatzeko momentuan lasai eta gustura baldin bazaude ez duzu zertan minik sentitu; izan ere, urduri bazaude, muskuluar gogortu egiten dira eta koitua zailtzen dute. Beraz, badakizu: erlaxatu



Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aurkezpena



Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aurkezpena egin dute. Esku orriak banatu dizkie herritar guztie. Bertan Gizarte Zerbitzuak dituen lau programak zertan datzaten azaltzen da, hots, programa bakoitza zer den eta, zein laguntza mota eskeintzen dituen, gizarte zerbitzuarekin harremanetan jartzeko moduak, telefonoak, helbideak, e.a.

GIZARTE ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzua, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalek osatzen duten Mankomunitatearen zerbitzu bat da.

Gizarte Zerbitzuak publikoak eta oinarrizkoak dira, hau da, herritar guztientzat direlako

eta lehenengo erantzuna emateko proposak direlako.

Gizarte Zerbitzuen helburua, herritar guztiei, gizarte arloan, laguntza eta irtenbideak bideratzen laguntzea da.

Gure Gizarte Zerbitzua, gaur egun, 12 langile lan egiten dute (2 gizarte langileak, 6 famili langileak, 3 gizarte hezitzaileak eta administrari 1) eta 4 programa daude:

- Harrera egiteko eta gizarte-orientazioa emateko programa.
- Laguntza behar duten pertsonen zuzendutako arreta-programa.
- Gizartean integratzen laguntzeko programa.
- Familientzako, gazteentzako eta umeentzako arreta programa.



Aniztasun biologikoaren gainbehera

Azken urteotan gehien zabaldu den terminoetako bat biodibertsitate edo aniztasun biologikoa da, hau da, edozein jatorri duten izaki bizien aniztasuna. Baina izaki bizien espezie anitzen existentzia aipatze hutsa baino haratago doa termino hori.

Biodibertsitateak lehorreko eta uretako ekosistemen aniztasuna ere ukitzen du, bai ekosistema naturalak eta

bai gizakiak sortutakoak, esate baterako, nekazaritzako ekosistemak. Eredu zabala hartzen duen terminoa da eta beraz, horren barruan hainbat arlo sartzen dira: ikus daitezkeenak, hala nola baliabide biologikoak, edo ikusezinak esate baterako, ezagutzak edo berrikuntzak.

Aniztasun biologikoa eremu jakin batean bizi den espezie kopuruarekin adierazten da normalean. Lurreko bio-

dibertsitatearen %75a hamazazpi herrialdetan pilatuta dago. Herrialde horiek dibertsitate handikotzat jotzen dira.

Brasil, Kolonbia, Txina, Costa Rica, Ekuador, India, Indonesia, Kenya, Mexiko, Peru, Hegoafrika eta Venezuela dira aniztasun ikaragarria duten herrialde horietako batzuk. Horietako askorentzat garapenerako faktore estrategikoa da egoera hori.

Europar, bestalde, biodibertsitatea krisian dago.

Espezie guztiak bioadierazleak dira eta haien beherakadak esan nahi du haien bizilekuak ere hondatzen ari direla. Atzerakada horren arrazoia oker planifikatutako garapena da. Ingurune ahuletan (adibidez, paduran edo kostaldean) azpiegiturak eraikitzea oso ohiko jarduera izan da azken hamarraldietan eta oso eragin txarra izan du ingurumenean. Baso helduak bota eta hazkunde bizkorreko espezieekin ordezkatzek, monolaborantzak ugaltzek eta nekazaritza eta abeltzaintzako metodo tradizionalak baztertzeak ere asko pobretzen dute ingurune naturala.

GALTZEKO ARRISKUAN

Naturaren Munduko Fondoak kezka handiz ohartarazi du Europako hamar animalia eta landare espezie galtzeko arriskuan daudela. Animalia eta landare espezie horiek bucardoaren bide bera daramate. Bukardoa mendiko ahuntz subespezia da. 2000ko urtarrilaren 6an hil zen azkenekoa Pirinioetako bere azken babeslekuan, Ordesan hain zuzen ere. Hamar espezie horiek Europako habitat gehienetako espezie esanguratsuak dira eta penintsulako floran eta faunan aurki daitezke.

Gizakiaren presentzia arazo larria bihurtu da ingurumenarentzat, etengabe gauzatzen dituen jarduera kaltegarriez aparte. Arazoa Lurrean bizi garen biztanle kopuruagatik sortu da: 6.000 milioi pertsona gara.

Baina gizakiak ingurunean egiten duen presioa ez da homoginoa. Landa inguruneak jasan dezake oraindik presio hori; izan ere, landako biztanle gehienak bere ingurunearekin harmonian bizi dira. Arriskua hiriko aglomerazioetan dago, ingu-

runeari erasotzen diotelako eta kutsatzeko gero eta ahalmen handiagoa dutelako.

1950. urteaz geroztik hirietako populazioa hirukoiztu egin da; orduan 750 milioi lagun inguru bizi ziren hirietan; gaur egun, berriz, 3.000 milioi dira. Aurreikuspenen arabera, mundu garatuko hirietako populazioa bikoiztu egingo da: 2000an 1.900 milioi izatetik

2030ean 4.000 milioi izatera pasako da.

INGURUMENAREN ALDEKO KONPROMISOAK ESTATU ESPAINIARREAN

Nuklearra Uraren kutsadura. Zabor nuklearra. Mutazioak sortzen ditu bizidunetan. Hidroelektrikoa Biztanleriaren desadostasuna. Klima aldaketa. Fauna eta landareen aldaketa.





Laku-ertzetako higadura, urtegiko gasa sortuz (gas metanoa) biomasa-ren deskonposaketarekin. Petrolioia eta gasa Kutsadura atmosferikoa. Ingurumenaren kutsadura. Fauna eta landareen aldaketa.

Espainiako Estatuko administrazioak abian jarri ditu garapen jasangarria bultzatzeko irtenbideak. Horretarako, 2002an dokumentu bat prestatu zuen. Bertan ingurumenaren inguruko irtenbide eta helburuak adierazten dira eta bost urteko epea ezartzen da dokumentua berrikusi eta egokitzeko.

Dokumentuaren helburua ez da, besterik gabe, Natur ingurunea babestea, Rioko Gailurrean sortu zen garapen jasangarriaren kontzeptuari bete-betean eustea baizik. Kontzeptu horretan funtsezko gai batzuk sartzen dira, esate baterako, hazkundera eta natur ingurunearen babesa bateragarri egitea. Honako hauek dira **Gara-**

pen Jasangarriaren Estrategiari begira hartutako konpromiso nagusiak:

2010. urterako karbono dioxidoaren (CO₂) isurketa %20 murriztea, 1990eko isurtze-maila kontuan hartuta.

Garraio publikoaren erabilera indartzea. Energia berriagarriak modu eraginkorrean sustatzea ondorengo helburuekin: 10.000 Mw eoliko 2010. urterako eta 13 Mtep biomasa 2006rako.

Eraginkortasun energetikoa handitzea eta gehiago aurreztea.

Elementu kutsatzaileen iturriak murriztea.

Hiritarren mugitzeko premiak murriztuko dituen garapen-eredua bultzatzea.

Errepideko garraiorako egindako inbertsioak kalitatezko garraio publikora bideratzea, gidariei autoa hartzeko gogoia kentzeko.

Aireko trafikoa murriztea.


Petroliotik ateratako gas likidoak erabiltzea (PGL motordun ibilgailuetan garraio publikorako).

INGURUMENAREN ALDEKO KONPROMISOAK EAE-N

2002ko ekainean **Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia** onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenerako garapen-eredu harmonikoa lortzeko helburuarekin.

Administrazioak, hiritarrek, enpresek eta era guztietako erakundeek garapenaren arlo guztietan parte hartzeko mekanismo-jarduerak ezartzea zen helburua. Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak ondorengo oinarri orokorrak ditu:

2020. urtea da garapen jasangarriko eredu berri baten oinarriak ezartzeko epea.



Hazkunde ekonomikoa, gizarte kohesioa eta ingurumenaren babesa elkarrekin joatea lortu behar da.

Ingurumen-sistema orekatua finkatu behar da, Euskal Herriko aniztasun ekologiko eta soziokulturala behar bezala kontuan hartuko duena.

Erakunde publiko eta gizarte eragileen arteko konpromisoa eta lankidetzeta aktiboa lortu behar dira garapen eredu berri hori definitu eta defendatzeko orduan.

Honako hauek dira Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak proposatzen dituen helburu zehatzak:

1. Aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea.
2. Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea. Sustatu beharreko balioa.

4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua.

5. Klima aldaketaren eragina mugatzea.

EKOLOGISMOA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian mugimendu ekologista eta ohitura ekologikoak oso garatuta daude. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak dituzten estatu mailako elkarte ezberdin asko daude. Beste batzuk tokian tokikoak dira eta ingurumenari dagozkion interesen alde borrokatzen dute; esate baterako, baserriak edo zingirak babesten dituzte, **Fundamento Orain Taldea** izeneko elkarteak egiten duen bezala.

Ecologistas en Acción estatu mailako konfederazio bat da; 300 talde ekologista baino gehiago hartzen ditu bere barruan. Gizarte ekologismo izeneko joeraren barruan sar dezakegu. Joera horren arabera,

ingurumeneko arazoan jatorria gero eta globalizatuagoa den ekoizpen eta kontsumo ereduari dago.

Adena/ WWF (Izadirako Mundu Fundazioa) planeta osoan izadia kontserbatzeko lan egiten duen erakunde pribatu handienetako bat da. Benetako konponbideak aurkezteko helburuarekin, bere jarduerari eta filosofiararen jasangarriaren printzipioan oinarritzen ditu, hau da, ondorengo belaunaldien beharrei kalterik egin gabe, gaur egungo ongizatea asetzeko. Hori baliabide naturalen arazoizko kudeaketa planifikatu baten bidez egin daiteke.

ZERTAN DA EUROPAKO INGURUMENA?

Europaraino, ingurumenarekin lotutako hainbat arazo daude konpondu gabe, esaterako, klima-aldaketa, biodibertsitatea galtzea edo hiri-inguruetako poluzio atmosferikoa. Eta, egoera

horren berri emateko, gutxi gorabehera 20-30 orrialdeko txostena argitaratu du Europako Batasuneko Ingurumen Agentziak.

Europako Batasuneko Ingurumen Agentziak urtero ematen ditu gai horri buruzko datuak. Datu horiek ingurumen-adierazle jakin batzuetan oinarrituta daude, eta mementuko egoera zein den jakiteko baino gehiago bilakaera ezagutzeko balio

dute. Izan ere, oro har, ingurumen-adierazle horiek epe jakin batzuetan neurtzeko eta aztertzeko modukoak izaten dira. Adierazle horien bilakaera aztertuta, joera ezkorak aurrez ikusi edo zuzendu daitezke.

Ingurumenaren egoera faktore askoren arabera neur daiteke, baina azterketa 22 adierazlera mugatuta guztiontzat ulerterrazagoa eta neurtzeko errazagoa da. Adierazle horiek

8 sailetan banatzen dira: atmosfera eta klima, glaziarrak, elurra eta izotza, itsasoko ekosistema, ekosistema lehortarra eta biodibertsitatea, ura, nekazaritza, ekonomia eta osasuna.

Aurtengo txostenean, bereziki nabarmentzen da nekazaritzaren, garraioaren eta energia-konsumoaren ingurumen-inpaktua kudeatzen jarraitu behar dela. Izan ere, erregai fosilen errekontza, garraio- zein energia-sektoreak, nekazaritzako jarduera eta industria-prozesuak dira, besteak beste, berotegi efektuko gasen sortzaile nagusiak. Eta gas horiek guztiek eta beste askok, jakina denez, ingurumena kaltetzen dute.

EAE-KO EGOERA

Ingurumen-adierazleen sarean Europako eskualde gutxi batzuk daude, eta horietako bat Euskal Autonomia Erkidegoa da. Energia eta garraioa dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioa gehien handitu duten sektoreak.

Gizakiok dugun energia-beharren ondorio dira gaur egun ditugun ingurumen-arazo nagusiak (berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak, SO₂-aren eta NO_x-en emisioak, etab.). Eta datuek ere hori bera adierazten dute. Izan ere, energia da berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio gehien egiten duen sektorea EAEn. 5,9 milioi tona isuri zituen 2003an, berotegi-efektuko gasen emisio guztien % 30.

2002tik 2003ra, % 8 handitu da garraio-sektoreak atmosferara isurtzen duen berotegi-efektuko gasen kantitatea. Errepideko garraio-sektorea da hazkunde horren errudun nagusia.

Nekazaritza da Kyotoko protokoloa betetzen duen sektore bakarrenetakoa. 1990etik gaur arte, % 12 hazi





da nekazaritza-sektoreak egiten duen berotegi-efektuko gasen emisioa — Kyotoko protokoloaren arabera, estatu espainiarrean % 15era arte haz daiteke—.

Dena den, guztia ez omen da txarra eta klima-aldaketak onurak ere izan ditzake. Izan ere, tenperatura altuagoekin Europa iparraldeko nekazaritzak hobera egingo luke. Europan bizi diren hegazti-espezieen kopuruak gora egin du azken hamarkadan, eta baliteke tenperaturak igozten doazen heinean ere bide horretatik jarraitzea.

Hala ere, argi dago klima-aldaketari aurre egitea guztion ardura dela, eta mundu hain preziatu hau zaintzea guri dagokigula, guk eraman baitugu Lurra egoera honetara. Izan ere, Gobernuak, duten erantzukizuna dela eta, erabakiak hartu behar dituzte, zalantzarik gabe. Baina herrita-

rrak ere neurri asko har ditzakegu inguru

ONGARRIEK ERAGINDAKO KALTEAK

Nekazaritzan erabiltzen diren ongarririk gehien osagai nagusia nitrogenoa da. Izan ere, nitrogenoak landareen hazkundera eta produkzioa bizkortzen du. Baina lursailetan nitrogeno gehiegi aplikatuz gero, landareek ez dute nitrogeno guztia erabiltzen eta arazoak sortzen dira. Alde batetik gasak isurtzen dira eta bestetik urak poluitu.

Gasen emisioak lurreko mikroorganismoen eraginez nitrogenoaren hainbat konposatu aieratzean gertatzen dira. Horietako konposatu batzuek, oxido nitrosoak (N_2O) eta oxido nitrikoak (NO_2) esaterako, ingurumen-arazo larriak sor ditzakete. Lehenengoak berotegi-efektuan

eragin nabarmena du, eta karbono dioxidoarekin (CO_2) batera konposatu arriskutsuenetarikoa da. Eta oxido nitrikoak, berriz, euri azidoa eragin dezake.

Gas-emisioez gain, ordea, kontuan hartu behar da uren poluzioa ere. Nitrogenoa nitrato (NO_3) moduan dagoenean, euri-urekin batera edateko ur-putzuetara, erreketara eta aintziretara hel daiteke. Edateko uren kasuan, osasun-arazoak ager daitezke. Bigarren kasuan, berriz, uretako eutrofizazioa gertatzen laguntzen du. Eutrofizazioa dagoenean, uretako mikroorganismoak eta landareak gehiegi hazten dira, uretako oxigenoa xahutzen da eta.

Oharra: informazio iturriak: Elhuyarren weborria, wikipedia entziklopedia, Argia aldizkariaren weborria eta Plazao-laren weborria.

Euskararen garapen teknolinguistikoa



Informazioaren eta komunikazioaren aroan bizi gara. Aro honetan beharizan berriak sortu dira eta sortzen ari dira, neurri handi batean Internetek eraginda. Hori dela eta, unibertsitateak, ikerketa-zentroak eta enpresak hizkuntzen trataera berezia duten teknologia berriak garatzen saiatzen dira, “infoingeniartzia linguistikoa” edo “hizkuntzen teknologiak” hain zuzen ere. Negoziobide eta merkatu berriak agertu dira, eta, horiek bultzatuta, teknologia horiek aurrerapauso handiak egiten ari dira; “hizkuntzaren industriak” legez ere ezagutzen dira, eta batik bat honako hauek dira:

- Ahotsaren ezagutza (Speech-To-Text y Automatic Speech Recogniton)
- Ahotsaren sintesia (Text-To-Speech)
- Karaktereen ezagupen optikoa (Optical Character Recognition)
- Itzulpen automatikoa
- Ahozko datuen konprensioa
- “Data / audio mining” (dokumentazio-multzo handietan bilaketak egitea)

Euskarak asko aurreratu du azken urteotan teknologia berrietan integratzeko:

1. Euskarazko prentsa on-line (euskara hutsezko egunkari bat eta izaera ezberdineko hainbat aldizkari).
2. Euskara ikasteko eta euskarazko edukiak dituzten CDak.
3. Diziplina anitzeko euskarazko web orriak, euskarazko bilatzaileak (www.kaixo.com, www.aurki.com, www.jalgi.com) eta gaikako aldizkari digitalak eta eztabaida-guneak (www.sustatu.com eta www.erabili.com).

4. Sarean jarritako hiztegiak, corpusak eta hainbat erremin-ta, oso erabilgarriak hizkuntzaren teknohiztunentzat:
- XUXEN euskararen zuzentzaile ortografikoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Informatika Fakultatearen IXA taldeak egina. Doan jaitsi daiteke www.euskadi.net/euskara_soft helbidetik: Office 97, 2000 eta XP bertsioak, bai eta OpenOffice.org-etik ere Windows zein Linux-erako ere; eta Macintosh-en Word 98 eta 2001 bertsioak.
 - EUSKALTERM, Terminologia Banku Publikoa (UZEIk 1987an sortutako izen bereko bankuaren gainean sortua): www.euskadi.net/euskalterm
 - Hiztegi elektronikoak:
 - Elhuyar Hiztegia, gaztelania-euskara/euskaragaztelania: www.euskadi.net/hizt_el
 - 3000 Hiztegia, gaztelania-euskara/euskara-gaztelania: www.euskadi.net/hizt_3000
 - Sinonimoen Hiztegia, Antonimoduna: www.euskadi.net/hizt_sinon
 - Morris Student Plus Hiztegia, ingelesaeuskara/ euskara-ingelesa: www.euskadi.net/morris
 - Harluxet hiztegi entziklopedikoa: www.euskadi.net/harluxet
 - Elhuyar EU/ES hiztegiaren plugin-a; Word 2000 eta 2002an eta Internet Explorer-en integratzen da: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua: euskararen ohiko lexikoaren 20000 hitz ingururen forma estandarra bil-tzen du, eta egun beste horrenbeste hitz sartzeko lanean ari dira: www.euskaltzaindia.net
 - XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa; Euskaltzaindiak aginduta UZEIk egin du: www.euskaracorpusa.net
 - Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): Euskal Herriko Unibertsitatearen Informatika Fakultatearen IXA taldeak burutua: <http://ixa2.si.ehu.es/edbl/>
 - EAEko Toponimia-datutegia: www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia
 - Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitate, euskal abizen (orain arte 10.000 inguru bildu dira) eta ponte-izenen izendegi ofizialak: www.euskaltzaindia.net
 - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), euskaraz eta gaztelaniaz: www.euskadi.net/bopv
5. Software produkturik erabilienean itzulpena eta lokalizazioa:
- Windows 95 eta Windows 98; Windows XP interfazearen paketea: www.microsoft.com/spain/windowsxp/euskera
 - Word 6 eta Office 2000 (Word, Excel eta Outlook).
 - Internet Explorer 4 eta 5; Outlook Express 5.
 - Linux Mandrake sistema eragilearen 8.2 eta 10.0 bertsioak: www.euskadi.net/euskara_soft
 - OpenOffice.org 1.0.2 ofimatika-paketea, bai eta 1.1 bertsioa Windows eta Linux-erako: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Panda Titanium Antibirusa: www.pandasoftware.es/titanium/euskara
 - Panda Platinum Antibirusa: www.pandasoftware.es/platinum
 - Autoikaskuntzarako Wit ikastaroak (Word 2000 eta Internet 2000).
 - Omnipage-ren 11. eta 12. bertsioetarako OCR, bai eta Windows Word-erako eta Mac Word 2001erako ere: www.euskadi.net/euskara_soft
 - Optenet, Interneten edukietarako iragazkia: www.optenet.com
 - Prisma II: Pyme-ak kudeatzeko softwarea
 - SAPen bost kudeaketa-modulu: www.euskadi.net/euskara_soft
- Horietaz gain, eskola softwarea (EIMA) euskalduntzeko programak ere aipatu behar dira, Eusko Jaurlaritzaren Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.
6. Agertoki birtualak:
- HABENET: Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze-rako Erakundeak burututako proiektua, urrutiko irakas-kuntza eta irakasleen prestakuntzarako. Hona helburuak: HABEren sarearen (HABE, euskaltegiak, irakasle eta ikasleak) barne eta kanpo-harremanak hobetzea, mate-rial didaktikoa eskuragarri jartzea eta homologatzea, autoikaskuntza- eta didaktika sistemak on line garatzea; irakasleen eten gabeko prestakuntza tutoreen bidez gidatzea, administraziokudeaketa hobetu eta erraztea.
 - HIZPONET, hizkuntza-plangintzaren kudeaketa opti-mizatze. Honen helburua da Euskararen gizarteazpiegi-tura publiko eta pribatuetan barne- eta kanpokomunika-zioa hobetzea.
 - HIZNET hizkuntza-plangintzari buruzko graduatuondo-ko ikastaroa da eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Funda-zioak, Udako Euskal Unibertsitateak (UEUK) eta Sozio-linguistika Institutuak (SEIk) antolatu dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera. Ikastaroa Interneten bidez ematen da, eta hizkuntza-normalkun-tzarako teknikariei, profesionaliei, ikerlariei eta hizkun-tza-normalizazioaren arloan ardura dutenei zuzentzen zaie.

- LINGUANET, prestakuntza-moduluak on line, eremu sozioekonomikoan diharduten hizkuntza-normalkuntza-ko teknikariei zuzenduak. Asmoz Fundazioaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimena da.
 - Zinegotziek euskara ikasteko moduluak on line jarriko dituzte laster Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDELeK).
7. Informazioa biltzea, berreskuratzea eta bilatzea:
- Kapsula softwarea: indexatu eta kontsultatzeko euskaraz merkaturatu den lehen softwarea; lematizazio-teknikak erabiltzen ditu (dokumentuak kudeatzeko sistema legez garatua). Proiektua Ametzagaina eta Adur Software enpresek garatu dute, eta Eusko Jaurlaritzaren Intek programaren bidez finantzatu da: www.kapsula.com
8. Ahotsaren ezagutza automatikoa eta sintesia:
- Telefónicak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera hizkuntza-gaitasunak jorratzeko hainbat proiektu garatu ditu, euskaraz ahotsa interpretatu eta soinu bidezko mezuen sintesia egiteko.
 - Eusko Jaurlaritzak Scansoft Belgium enpresa belgikarrarekin lankidetzak hitzarmena sinatu zuen 2003an, batetik, ahotsaren ezagutza eta sintesirako motoreak sortzeko, eta, bestetik, euskarazko elkarrizketa kudeatzeko motoreak.
- Teknologia alorreko agente euskaldunak (enpresa eta unibertsitateak) proiektua bideratzeko behar diren hizkuntza-baliabideak egiten ari dira: datu-base akustiko bi, lexiko fonetiko bat eta testu-corpus handi bat. Horren helburua da ahots-teknologiak erabiltzen dituzten aplikazioak garatzen dituzten enpresek euskara integratzea produktuetan.
9. Hizkuntzaren ingeniartzaren oinarritzko teknikak garatzea, hala nola hizkuntza prozesatzeko teknikak. Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA taldeak (www.ixa.si.ehu.es) honako lan hauek burutu ditu:
- MORFEUS analizatzaile morfologikoa.
 - EUSLEM, euskararako lematizatzeile/etiketatzaile automatikoa.
 - Gain: euskarara egokitutako Internet/Intranet bilatzailea.
 - Multimeteo: eguraldi-iragarpenak sortzeko sistema euskaraz.
- Aipatzekoa da, halaber, Deustuko Unibertsitateko DELi ikerketa-taldea, informazio eta komunikazioko teknologietako lerroa irekita baitu: www.deli.deustu.es
10. Testua testu bihurtzea (itzulpena) eta testuaren tratamendua testuinguru ofimatikoan; funtzionaltasunak:
- Itzulpen-memoriak: lege- eta administrazio-itzulpenen memorien corpusa sortzen ari da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala, Trados teknologiaren oinarriaren gainean.
 - Itzultzen laguntzeko tresnen zenbait prototipo, Euskal Herriko Unibertsitatearen IXA taldeak garatuak.
 - ATS teknologiaren esperimendazio-proba, euskarari aplikatuta; Eusko Jaurlaritzak eta Automatic Trans enpresa katalanak lankidetzan burutu dute.
11. Hizkuntza-ingeniaritza ikertzeko laguntza-programak:
- ETORTEK programa (2002-2005), Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarena: HIZKING 21, hizkuntza-ingeniaritza XXI mendearen atean, proiektua bideratzen ari dira euskal enpresa eta unibertsitateen eragile teknologiko elkartuak.
 - INTEK programa, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailarena: programa honen barruan ACOTE proiektua garatu zen, eta horren oinarriaren gainean gaur egun AMETRA proiektua garatzen ari da. Proiektu biotan itzultzen laguntzeko tresnak ikertzen dira.
12. Hizkuntza-infoingeniaritzako enpresak sortzea: ELEKA enpresa; Adur Software, Ametzagaina eta CodeSyntax enpresak ere alor horretan ari dira.
13. Hizkuntza-teknologia irakaskuntzan sartzea: HIZTEK graduatuondoko ikastaroa, Udako Euskal Unibertsitateak antolatua.
13. Euskara Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan integratzeko dirulaguntzak: helburu horretarako, urtero agindu bat argitaratzen du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak.
- Era berean, helburu bera duten dirulaguntzak ematen dituzte Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek. Horiez gain, ekimen lokalago batzuk ere badira.





GAIKOTASUNAK

ANHEDONIA:

Gauza atsaginez gozatzeko ezintasuna.

BULIMIA:

Elikaduraren transtomo bat da, loditzeko beldurra duten emakume gazteei zuzendutakoa gehienbat.

CAPRAS SINDROMEA:

Alboan duen jendea inpostorea dela pentsatzen du gaixoak. Batzuetan bere burua ere ez du ezagutzen; eta, gainera, beraz ezagutzen ez duen alde horrek min emango diola uste duo ekiditzen du nola edo hala. Bere bamean murgiltzen da eta bere buruarekiko autikritika egiten duo. Sintoma batzuk antsietatea eta obsesioa dira.

JULES COTARD SINDROMEA:

Gaixotasun hau sufritzen duen pertsonak hilik dagoela uste du; eta, denborarekin, usteltzen ari dela, barrendo organuak ere usteltzen ari baitzaizkio. Batzuek, haragi ustelaren usaina ere sumatzen dute batzutan, eta beste batzuek ar nazkagarriek pixkanaka barrutik jaten dutela uste dute.

Dr. STRANGELOVE SINDROMEA:

Gaixoak ez du eskua bere gorputzaren zati bezala onartzen, eta bakarrik mugitzen dela usted u, poseituta dagoelako.

EXIBIZIONISMOA:

Inolako kontaktu fisikorik gabe, pertsona bati organu genitalak erakustea, plazerra sentitzeko helburuarekin.

FISH ODOUR SINDROMEA:

Ezbehar baten ondorioz, gaixoak berea ez den beste hizkuntza baten azentua eskuratzen du bere hizkuntza propioan. Horrela, adibidez, istripu bat edukitzen duen pertsona euskalduna frantses azentuarekin hitz egiten hasiko da, Frantzian inoiz egon ez den arren.

GELIOFOBIA:

Barreari beldurra dion pertsonak sufritzen du.

HIPOPOKONDRIA:

Gaixoak medikuak inoiz diagnostikatu ez dion gaixotasun bat jasateko beldurra du, eta ez duen gaixotasun horren ondorioz hiltzearen beldur da.

INTROBERTSIOA:

Gaixoak gizartetik kanpo egon nahi izaten du, eta gizartearen parte izatea

KLUVERBUCYSINDROMEA:

Gaixo hauek hainbat joera bereganatzen dituzte, besteak beste: objektuak ahora eramaten dituzte, jendaurrean Beren burua ukitzen eta mihazkatzen dute, objetuekin sexua praktikatzeko ahalegintzen dira, eta ikusten duten edozein objektu ukitu nahi izaten dute, arriskutsua den edo ez bereizi gabe.

LEVOFOBIA:

Pertsona hauek beren gorputzeko ezker aldeko atalei beldurra diete.

MAKROPSIA:

Objektuak benetan direnak baino handiagoak ikustea.

NARKOLEPSIA:

Loaren transtomo bat da, eta egunean zehar edozein lekutan bat-batean lo hartzean datza. Askotan, aluzinazioak edo hitz egiteko zailtasunak dakartza.

OFIDOFOBIA

Sugeei beldur handia edukitzea.

PARANOIA

Gaixotasun hau besteenganako deskonfiantza izaten sinismenetan edo oinarrituta duten pertsonen susmoa edo dute, normalean desilusioetan

RITMOPATIA

Erritmoaren transtomoak dira, garunaren ezezagortasunean oinarrituta



(insomnioa, anorexia, bulimia). Normalean, lotarako orduen atzerapena edo gauean lo egina ezina gertatzen da.

SONAMBULISMOA

Lotan gauden bitartean, edozein ekin-tza egitea inkontzienteki eta komunikatzeko gaitasunik gabe, adibidez: ohetik atera, ibili, pixa leku ezezagokian egin, etxetik atera, telebista ikusi... Gehienbat, umeez edo nerabeek jasaten dute.

TRIKOTILOMANIA

Inpultsuak kontrolatu ezina da. Gaixoek beren ileak indarrez ateratzeko joera dute (eta ez burukoak bakarrik; baita bekainetakoak, betileetakoak, besape-etakoak edo pubisekoak ere).

VOYEURISMOA

Gaixoek besteen ekin-tza intimo, sexual eta erotikoa ikusten disfrutatzen dute.

XENOFOBIA

Ezagunei edo atzerritarrei beldurra izatea.

CAFFEY-KEMPE

Beraien haurrei edo beraien kargu darduen haurrei tratatu txarrak ematen disfrutatzen duten guraso edo tutoreek sufritzen dute.

ZOOFILIA

Animaliekin erlazio sexualak edukitzean disfrutatzen duten pertsonen sufritzen dute.

Fobiak

eta zuk zeri diozu beldurra?

ANTHROFOBIA

Loreei beldurra. Udaberrian ez zaitez maitemindu gazte!

ABLUTOFOBIA

Garbitzeari edo bainua hartzeari beldurra. Katuen arrazakoa izango zara.

BIBLIOFOBIA

Liburuei beldurra. Ez al da ez ikasteko aitzakia izanen?

CHAETOFOBIA

Ileari beldurra. Buru soiltxorekin ligan!

EUSOFOBIA

Egunsentiari beldurra. Probatu al duzu odola? Agian banpiro bat zara!

FRIGOFOBIA

Gauza hotzei beldurra. Ipar-poloa ez da zure tokia!

GENUFOBIA

Belaunei beldurra. Galtza motzik ezjarri!

GRAPHOFOBIA

Idazkerari beldurra. Egipitiarrak bezela idazten ikasi beharko duzu!

HIPPOTOMONSTROSESQUI PPEDALIOFOBIA

Hitz luzei beldurra. Ezetz irakurri: superkaligrafilistikoespialidoso.

HELIOFOBIA

Eguzkiari beldurra. Ba al duzu eguzkitako betaurrekorik?

IDEOFOBIA

Ideiei beldurra. Bombilla ez zaizu piztuko, bada!

KYPHOFOBIA

Makurtzeari beldurra. Ez zaizu berehala tanga ikusiko!

LYSSOFOBIA

Haserretzeari beldurra. Ikusiko duzu ipurdipean txintxeta bat jarritz gero zeinen lasai hartuko duzun ...

METROFOBIA

Olerkiei beldurra. Ez zait harritzen, normala da!

MEDORTHOFOBIA

Zakila tentetuari beldurra. Eta zer ikasi zenuen 6.mailan?

NOMATOFOBIA

Izenei beldurra. Nola izena duzu?jaja

NUMEROFOBIA

Zenbakiei beldurra. Emaidazu zure telefono zenbakia, arren!

OPTOFOBIA

Begiak irekitzeari beldurra. Egun on!

OVRAFNOBIA

Zeruari beldurra. Begira begira gora, asto bat hegan!

PARTHENOFOBIA

Birjiðei beldurra. Zer daukazu betaurreko berezi batzuk birjiðak direla ikusteko?

PHILOSOFOBIA

Filosofiari beldurra. Zu bai zu moralgabea!

RHYSOFOBIA

Zimurrei beldurra. "Estrakto de baba de karakol" delakoa erabiltzen hasi beharko zara, motel!

SHYGENESOFOBIA

Senitartekoei beldurra. Ez beldurtu, beharbada ez zara uste duzun familia-koa eta.

TELEPHONOFOBIA

Telefonoei beldurra. Ze mendetan bizi zara?

THAOSOFOBIA

Esertzeari beldurra. Eta nola egiten duzu kaka?

VESTIFOBIA

Arropei beldurra. Zu ezagutzeko irrikitan nago!

WICCAFOBIA

Sorgiðei beldurra. ... ikimilikiliklik ...

XANTHOFOBIA

Kolore horiari beldurra. Orduan zuri-beltzeko telebistan ikusiko duzu "The Simpson", ezta?

ZEUSOFOBIA

Jainkoari beldurra.

Euskarazko Produktuen Katalogoa

Euskarazko Produktuen Katalogoaren X. edizioa aurkeztu da 2008an. Katalogoaren bidez, merkatuan euskaraz dauden produktuen eskaintza ezagutzera eman nahi da, baliabideak eskaini nahi zaizkie guraso eta

gazteei eta euskarazko produktu-eskaera ugaldtu nahi da, merkatua dinamizatuz eta indartzuz.

16 urte bitarteko haur eta gazteentzako 320 produktu bildu dira aurtengo katalogoan, iaz baino 50 gehiago. Urtean argitaratu edo kaleratu diren produktu berriak jaso dira nagusiki zortzi ataletan sailkatuta: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak.

Aurten 260.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan, iaz baino 15.000 katalogo gehiago. Urtetik urtera zabalkunde handiagoa du katalogoak, Nafarroako euskara teknikariek 1997an argitaratzen hasi ziren geroztik.

Urtetik urtera zabalduz doa katalogoa, alde askotatik begiratuta ere: produktu gehiago, ale gehiago, antolatzaile gehiago eta baita banatzen den eremu geografiko zabalgia ere.

Katalogoa Udal eta Mankomunitateetako 105 Euskara Zerbitzuen eskutik argitaratu da eta Euskal Herri osoan hainbat erakundek babesa eman diote argitalpenari. Espreski argitu nahi izan zuten atzoko ekitaldian Arabako Aguraingo Udalak ere hartu duela parte, nahiz eta, akats bat medio, ez den antolatzaileen zerrendan agertzen.

Euskal Herri osoan teknikaiez osatutako lantalde bat dago katalogo hau prestatzeaz arduratzen dena, eta gune bakarra da non Euskal Herri mailako teknikariak elkarlanean ari diren euskara normalizatzeko egitasmoen inguruan.

Katalogoa kontsultatzeko modua ere ipini da sarean, www.katalogoa.org web gunean.



ESPERIMENTUA

Sumendia

Osagaiak:

- Kontserba lata bat
- Buztina
- Bikarbonatoa
- Ozpina
- Koloreztatzailea
- Makiltxo bat

Egiteko modua:

- Lata hartu.
- Buztinarekin inguratu lata, sumendi forma emanaz.
- Lehortutakoan, margotu eta barnizatu.
- Margoa eta barniza lehortutakoan esperimentu egin: lata ozpinez bete; gero, koloreztatzailea bota, eta azkenik bikarbonatoa. Dena nahastu.

Oharra: gainezka egiten duenez, azpialdea babestu egunkari-paperez, eta pertsona heldu baten laguntzarekin egin.

HIZKI ZOPA

Hizki zopa honetan Pokemonen 6 izen aurki ditzakezu.

A	T	R	A	I	T	X	U	T	Z	O	N
M	O	R	T	R	E	S	Z	J	A	E	E
U	N	A	I	J	O	R	G	E	G	T	R
J	U	N	E	L	P	I	K	A	T	X	U
B	E	I	L	I	F	K	A	N	E	A	E
J	U	L	E	N	U	R	K	O	Z	L	T
K	O	R	R	O	K	O	R	S	O	L	A
I	N	F	O	R	M	A	T	I	K	A	N
T	O	T	O	D	A	I	K	E	E	K	X
M	I	U	T	U	X	A	A	N	A	O	E
L	U	G	I	A	P	U	P	B	N	X	A
A	R	T	I	K	U	N	O	A	I	T	N

TXISTEAK

Gizon bat denda batean sartu, eta zera esaten dio dendariari:

- Egun on, andrea. Ba al daukazu komuneko paperik?
- Bai. Zein koloretakoa nahi duzu: zuria, gorria ala morea?
- Bada, niri emaidazu zuria, nik neuk jarriko diot eta kolorea eta.

Nekazari batek ahateari esaten dio:

- Bihar Parisera joango gara.

Eta ahateak erantzuten dio:

- Kua!

Eta nekazariak:

- Bihar.

Ondoren zerriarengana doa, eta hari ere esaten dio:

- Bihar Parisera joango gara.

Eta zerriakegiten du:

- Oin!

Eta nekazariak:

- Ez, oin ez, bihar joango gara.

Zertarako eramaten ditu ikasle batek betaurrekoak unibertsitatera?

Graduatzeke

Gizon bat oso urduri iristen da etxera, eta esaten dio emazteari:

- Hiri honetan ba al da pinguinorik?
- Ez, zergatik?
- Bada, orduan, moja bat harrapatu dut autoarekin

Bi emakume elkartu dira, xelebrea smarrak izaki. Batal besteari, inbiditan jartzeko, zera esan dio:

- Badakizu nire gizonak auto berria erosi duela? Volkswagen GE-TE-I.

Eta besteak honela, pixka bat gaizki hartuta:

- A, bai? Ba nireak beste bat erosi du: Mercedes, FAS-TI-DIA-TE.

Gizon bat medikuarengana joan da, eta ondokoa esan dio:

- Mediku jauna, zerbait larria daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.

- Ea, bota ezazu bat oraintxe bertan.

- PRRRR!!

- Hori oso larria da. Osasun azterketa egin behar dizugu.

- Non, ipurdian?

- Ez, gizona; sudurrean!

Zein da freskagarririk ilunena?

Noseve´na

ERREZETAK

Torradak

Osagaiak:

- Ogi xerrak
- Esnea
- Kanela (kanela maikl bat eta kanela-hautsa)
- Limoi azal birrindua
- Azukre pixka bat
- Arrautza bat

Egiteko modua:

- Lehenik eta behin, esnea, limoi azal, kanela eta azukrea berotzen jarri behar dira lapiko batean.
- Ondoren, berotu dugun esnea xerren gainetik bota eta beratzen utzi 30 minutuz.
- Gero, ogi xerrak irinetan eta arrautzetan pasatu, eta zartaginean frijitu.
- Azkenik, azukrea eta kanela.hautsa gainetik bota, eta... On egin.

Girlatxea edo Karamelo almendraduna

Osagaiak:

- Kilo bat azukre
- Kilo erdi almendra
- Limoi-erdia zuku
- Koilarakada bat ezti

Egiteko modua:

- Azukrea berotzen jarri, eta, karamelua egina dagoenean, almendra, limoia eta ezti bota.
- Dena irabiatu (loditzen joango da pixkanak)
- Mahai gainean zabaldu, edo albal paperean utzi, hozten. Erraz zatitzen da eta...Umm, ze goxoa!


EROSKOPOA



Aries: Hotza egiten du, baita euria ere. Zamarra hartu beharko duzu, eta euritako erosi gaixotu ez nahi baduzu.



Taurus: Mendira joaten bazara, erne ibili!!! Otsoak daude han, eta gogoratu zer gertatu zitaion Txano Gorritxori!!!



Gemini: Kontuz basoan dauden animaliekin, batzuek kosk egiten dute eta. Eraman ezazu zerbait babesteko.



Cancer: Galdu dituzun gauza guztiak aurkitu nahi badituzu, etxeko armairuak ordenatu beharko dituzu. Nahiko lan baduzu, beraz.



Leo: Eskatu duzun guzia ekarri al dizu Olentzerok? Ezetz eginen nuke, zaborra birziklatzea ahaztu zaizu eta.



Virgo: Hainbeste kafe hartzen baduzu, zure gorputzeko dardarrek lurrikara sortuko dute. Gabonak pasa gorputza garbitzeko dieta egin beharko duzu.



Libra: Gabonetan dulce gehiegi jan duzu, eta gehiegi edan baita ere. Orain egindakoa ordaindu beharko duzu .



Scorpius: Gabonetako oporretan, koheterik, petardorik edota bengalarik bota al duzu? Badakizu debekatua dagoela?



Sagitaris: Gabonetako gozopilean panpina tokatu zaizu berriz ere. Hau kalamitatea. Hurrengoan ere, zuk ordaindu beharko duzu gozopila.



Capricornius: Elkarteko kide egin ziñen sukaldean ikasteko, baina lagunek egin behar izan dute lan guttia. Ea noiz ikasten duzun!



Aquarius: Pintxo bat jatera gonbidatzen bahaute, har ezak handiena, ez txikiena, motel!



Piscis: Zure familiarekin zoorra joaten bazara, ez zaitzte joan jatorduetan, piztiak gosez dira eta.

IZEN-ABIZENAK EUSKARATZEA ERRAZA ETA LABURRA DA. ORAIN DUZU HORI ALDATZEKO AUKERA

Euskal izen-abizenak badituzu, baina agiri ofizialetan erdal grafian agertzen baldin badira, **ORAIN** duzu hori aldatzeko aukera. Gaur egun egin beharrekoak oso errazak dira, eta denbora motzean egin daitezke erroldatuta zauden herriko Erregistro Zibilean Udaletxean bertan.

IZENA EDO ABIZENA EUSKARATZEKO ETA ALDATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- 1 Eskatzailearen erroldatze agiria (Erroldatua zauden herriko udaletxean eskatu).
- 2 Eskatzailearen hitzez-hitzeko jaiotze agiria (herriko udalean edo Iruñeko Erregistro Zibilean eska dezakezu).
- 3 Nortasun agiriaren fotokopia etoriginala.

DHARRA:

- Aurreko dokumentuak 18 urtez gorakoentzat dira.
- Adingabeak abizena aldatzeko derrigorrezkoa da gurasoekin bertaratzea eta famili -liburua aurkeztea.
- Amak edo aitak abizena euskaratuz gero, adingabeko seme-alabena automatikoki aldatzen da.
- Izena edo abizena aldatu nahi baduzu Iruñeko Erregistro Zibilera jo beharko duzu eta eskaera egin.

KONTSTULTARRAKO TELEFONOAK:

Leitzako Bake Epaitegia: 948 610 866 (Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00, asteakenetan ez daude).
Iruñeko Erregistro Zibila: 84 84 24 008
Gainerako herrietan erroldatuta zaudeten udaletxera joan ohiko ordutegian.
Euskara Zerbitzua: 948 510 814

ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU:

Zure euskal abizenak euskal grafiara zuzendu nahi baduzu: Zure izena zuzendu edo euskaratu nahi baduzu:

- Cestau >> Zestau
- Sagastibelza >> Sagastibeltza
- Alduncín >> Alduntzin
- María >> Miren
- Iciar >> Itziar